



OINARRIAK

LEGAMIA 2024. ARTE BIZIEN SORKUNTZA ETA BITARTEKARITZA EGONALDI PROGRAMETARAKO BEKAK EMATEKO OINARRI ZEHATZAK.

LEHENENGOA.- Aurkezpena eta xedea

Errenteriako Udalak kultura eta sormena definitu ditu gizarte garapenaren oinarri nagusien artean. Bide honetan, zehaztu duen eredua sorkuntzaren sustapena, mediazioaren lanketa, partaidetza eta talde lana, berezko nortasuna edota kultur hezkuntzaren balioetan errotzen da.

Herritarrak kulturaren erdigunean kokatu nahi ditu, rol aktibo bat aitortuz eta sorkuntza prozesua, sortzaileak eta herritarren elkarlan espazioak gizarte kohesiorako eta bizi osoko ikaskuntzarako tresna gisa baliatu.

Testuinguru honetan, Errenteriako Udalak *Legamia* izeneko egitasmoa sustatu du. Erreterian errotu eta eragina izango duen egonaldi eta mediazio programa baten bidez, arte biziei (antzerkia, dantza, zirkua) loturiko proiektu artistikoen sorkuntza eta ikerketa prozesuak, edozein fasetan daudela ere, babestu, erraztu eta laguntzea du helburu.

Horrekin batera, Errenteriako Kultura departamentua eta honekin lankidetzan aritzen diren eragileen artean garatzen den mediazio plangintza baten bidez, sorkuntza bera Errenteriako eragile eta herritarrekin partekatze asmoa da programa honen ezaugarri nagusienetakoa. Hezkuntza sektorearekin modu nabarmen batean, baina baita elkarteekin, persona nagusien erresidentziekin, enprekin, Udaleko beste sailekin... Sorkuntza prozesuaren partekatze honen bidez herritarrei esperientzia artistiko interesgarri bat eskaintzeaz gain, sortzaileentzat eta sormen prozesu hauentzat ere ekarpen aberasgarriak sortzea bilatzen da. *Legamiarekin* gertatzen den bezala, sorkuntza prozesuak eta hauetan parte hartzen duten guztiak hazi eta ondu ahal izatea.

Elkarlan prozesu hauek, egonaldiaren alderdi gehienak bezala, sortzailearen, programan parte hartzen duten eragileen, eta Kultura Departamentuaren arteko entzumen ariketa eta elkarrizketaren ondorioa izango da. Sormen prozesuak babestu, duten behar eta erritmoei egokitu, baldintza eta bitartekoak baliatu eta prozesu hauen inguruan esperientzia aberasgarriak eraikitzea da, beraz, programa honen helburua.



Xedea:

Errenteriako Udalak *Legamia* izeneko egitasmoa sustatu du. Errenterian errotu eta eragina izango duen egonaldi eta bitartekaritza programa baten bidez, 2024. urtean, arte biziei (antzerkia, dantza, zirkua) loturiko proiektu artistikoen sorkuntza eta ikerketa prozesuak, edozein fasetan daudela ere, babestu, erraztu eta laguntzea du helburu.

BIGARRENA.- Dirulaguntzen partida eta banatuko den gehienezko kopurua

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldeztu aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean.

Deialdi hau, Errenteriako Udalaren aurrekontu propioetik finantzatuko da. Udalak programa honi 5 0830.481.02.333.10 2024 (283) Arte Biziak Egonaldi Programa partidako 24.000€ eskainiko dizkio 2024. ekitalditik.

Ondoren, egoki den Kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

HIRUGARRENA.- Pertsona onuradunak

Arte bizien sorkuntza eta bitartekaritza prozesuak egin ditzakeen edozein pertsona fisikok, juridikok edo pertsona fisikoen taldek egin dezake eskaera. Hemendik aurrera "konpainia" gisa hartuko dira.

Ezin izango da dirulaguntza hauen onuradun izan, Errenteriako Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren laugarren oinarrian jasotako baldintzak betetzen ez duen pertsona fisiko edo juridikoa.

LAUGARRENA.- Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioa

Interesatutako pertsonak edo erakundeek, Udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute dirulaguntza eskaera.

Eskaera orriarekin ondorengo aurkeztu beharko da:

- Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen IFZren fotokopia, hala badagokio.
- Pertsona fisikoen taldeen kasuan bakarrik: II. Eranskina (oinarriari erantsitako dokumentua)



— Bankuak emandako kontu korrontearen titulartasun ziurtagiria.

— Proiektuaren azalpen txostena, PDF formatoan gutxienez honakoak barne hartuta:

- Proiektuaren laburpena (gehienez 4.000 karaktere)
- Mediaziorako proposamena: zein eragile, dinamika, ekintza mota eta mediazioari eskainiko zaion dedikazio proposamena, egutegi balizko batekin. (gehienez 5.000 karaktere)
- Egonaldia den aldirako edo aldietarako (fase ezberdinetan banatu nahi bada prozesua) aurrikusitako lanerako plana edo kronograma proposamen bat. (gehienez 3.000 karaktere)
- Horietaz gain, proiektuaren dossierra, bideo-azalpena edo informazio gehigarri osagarria ere aurkeztu daiteke.

— Konpainiaren eta partaideen curriculumak, ibilbide artistiko eta profesionalarekin.

— Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, eskatzaileak zerga-betebeharrak (Foru Ogasunaren aurrean eta Gizarte Segurantzarekikoak) egunean dituela kontsultatuko du eta, horretarako behar den informazioa eskuratuko du. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango agiri bidez egiaztatzea. Udalak egiaztapen hori egitearen aurka egiten bada, eskaera orrian behar den bezala adieraziko da eta dagokion dokumentazioa aurkeztuko da.

Zergak aipatutako Foru-Ogasunetan ordaintzen ez dituzten eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela adierazten duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

— Zinpeko deklarazioa, non beste sail, erakunde, organismo, eta abarrei egindako dirulaguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntzenak.

— Euskarak eta berdintasunak zein tratamendu izango duen jardueraren hedapenean.

BOSGARRENA.- Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

Deialdi honetan izena emateko epea deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun balioduneko epea amaitu arte egongo da zabalik.



Dirulaguntza-eskabideak aurkeztu ahalko dira:

- Elektronikoki Errenteriako Udaleko web orriko egoitza elektronikoaren bidez (<https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura>). Pertsona juridikoen eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan aurreikusitako gainontzekoek ezinbestean bide hau erabili beharko dute.

- Aurrez aurre: ZU! Zure Udala – Arreta zerbitzuan (Udaletxe beheko solairua - Herriko plaza,z/g – Tlf: 943 449600).

- Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan

SEIGARRENA.- Hautapen batzordea eta irizpideak

Kide anitzeko hautapen batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu proposamen guztiak oinarri hauetako zazpigarren puntuan ezarritako ebaluaziorako irizpideen, formen eta lehentasunen arabera.

Balorazio batzordea arte eszenikoetan adituak diren kideez osatua egongo da eta gutxienez ondoko hiru hauek egongo dira: Kultura Departamentuko teknikaria, Errenteriako konpainia egoiliarren ordezkari bat, Udalak kontratatutako kultur bitartekaritza enpresako ordezkari bat.

Hautapen batzordea osatuko duen taldeko kideen zerrenda Errenteriako Udalaren <https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura> webgunean argitaratuko da.

ZAZPIGARRENA.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Epaimahaia edozein delarik ere, irizpide hauek izango dira kontuan hartuko direnak:

- Proiektuaren kalitatea, berrikuntza.
- Mediazio asmoetarako proiektuak duen potentziala, mediaziorako proposamena bera, eta zeregin honetarako aurreikusten den dedikazioa.
- Bilaketarako gogoia eta zalantzak eta hausnarketak pizteko gaitasun maila.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- CV eta portfolio edo dossier artistikoa.
- Euskarazko proposamenak positiboki baloratuko dira.



Aurkeztutako proiektuak ez dira soilik produkzioetara zuzendutako proposamenak izan behar. Ikerketa eta esperimendazio egonaldietarako proiektuak ere onartuko dira. Era berean dantza, antzerki, zirku edota hauen arteko nahasketa proiektuak aurkeztu ahal izango dira, eta ez da diziplinen arteko lehentasun edo mugarik jarriko.

ZORTZIGARRENA.- Hautatutako proiektuen zerrenda

Hautapen batzordeak jasotako proposamenak ebaluatu ondoren, Legamia deialdian hautatuak izan diren proiektuak, onuradunak eta zein baliabide jasoko duen proposamenak jasotzen duen txostena emango du, behar bezala arrazoitua.

Bertan zehaztuko da ere zenbat esleituko den eszenografia eta jantziatarako hala badagokie.

BEDERATZIGARRENA.- Dirulaguntzaren ebazpena

Hautapen batzordearen erabakia kontutan izanda, Kultur zinegotzi delegatuak behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du.

Proposamen horrek dirulaguntza ematea proposatzen dituen proiektuen zerrenda eta zenbatekoa adieraziko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuta, hala nola ezestea proposatutako eskaera zerrenda, baita horiek ezesteko arrazoiak ere.

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio.

Ebazpena udal iragarki ohoetan eta udal web gunean argitaratuko da. Hein berean banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza ukatzen zaien pertsona edo entitate eskatzaileei.

HAMARGARRENA.- Deialdiaren emaitza eta onarpena.

Deialdiaren emaitza, Udalaren <https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#kultura> webgunean argitaratuko da.

Emaitza argitaratu eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

HAMAIKAGARRENA.- Jabetza intelektuala eta irudi eskubideak

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatuko dute.



Hautatutako sortzaileak Errenteriako Udalarari utziko dizkio proiektuari dagozkion irudi eskubideak, Egonaldi programa honi buruzko jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo dena delakoetarako, bai paperean zein modu digitalean argitaratzeko. Guzti hauek programaren difusioarekin lotutako beharrak izango dira, inoiz ez helburu komertzialak dituztenak, eta betiere konpainia edota sortzaileekin adostutakoak izango dira.

Programa honen barruan garatutako proiektuek etorkizunean izan ditzaketen ekintza komunikatiboetan (dossier, afitxa eta antzekoetan) Errenteriako Udalaren eta Kulturakreaktiboaren logotipoa gaineratu beharko dute.

HAMABIGARRENA.- Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak

Deialdian aurkezteak honako baldintza hauek onartzea dakar:

- Gutxienez astebeteko eta gehienez 4 asteko iraupena duen egonaldi batean parte hartzea, elkarren segidakoak izan beharrik gabe.
- Egonaldiak batez ere astegunez izango dira, astelehenetik ostiralera (15:00ak arte), hala ere espazioen erabilerak baimentzen badu, asteburuetan ere luzatu daitezke.
- Konpainiak egonaldia edo egonaldiak aurrera eramateko data proposamena egingo du 2024ko martxoaren 1etik 2024ko abenduaren 31ko denbora tartean, betiere Udalarekin espazioen erabilgarritasunaren arabera datak adostuko badira ere. Egutegia ezin bada adostu, beka eta egonaldian parte hartzeko aukera galduko dira.
- Deialdi honetan parte hartzeak Legamia egitasmoaren asmo eta xedeekin bat egitea suposatzen du. Hau da, sorkuntza prozesua egonaldian garatzeaz gain, lan hau herriko eragileekin partekatze motibazioa edo borondatea beharrezkoa izango da. Partekatze honen nondik norakoak (mediazio dinamikak eta edukiak, egutegiak, epeak, moduak,...) alde guztien akordio eta ikuspuntuak bilatuko duen elkarriketaren bidez erabakiko da.

HAMAHIRUGARRENA.- Eskaintzen diren baliabideak

Errenteriako Udalak honako baliabideak eskaintzen dizkiei hautagaiei. Sortzaileak edo sortzaile taldeak baliabide bat edo gehiago eskura ditzake, sormen-proiektuaren beharren eta fasearen arabera. Eskaera orrian adierazi beharko da zein baliabide beharko dituen, sorkuntzarako espazioa eta mediatio taldearekin elkarlana gutxienezkoa izanda.



3.1. Sorkuntzarako espazioak

Errenteriako Udalak proiektu motaren, ezaugarrien, sorkuntza prozesu fasearen eta erabilgarritasunaren arabera espazio ezberdinak eskainiko ditu: Lekuona Fabrikako Sorlekua, edota Niessen Kulturgunea, adibidez.

3.2. Mediazio taldearekin elkarlana

Sorkuntza lanaren inguruko mediazio proposamena eraiki eta burutzeko konpainiaren parte-hartzea ezinbestekoa izango bada ere, proiektu hauek aurrera ateratzeko mediazio taldearen elkarlan eta babes osoa izango da (tokiko eragileekin harremanak, logistika,...). Mediazio talde hau, Kultura Departamentuko kideez, Errenteriako konpainia egoiliarrez, eta Lekuona Fabrikako mediazio zerbitzuko kideez osatuta egongo da. Talde hori arduratuko da, konpainiarekin edo sortzailearekin batera, tokiko eragileekin dinamika diseinatu eta gauzatzearaz, koaderno pedagogikoak egiteaz, ekintzez eta abarrez.

3.3. Ostatua

Egonaldiak iraun bitartean Errenteriako Udalak hautazko ostatua eskainiko dio sortzaile edo sortzaile taldeari ezarritako erabilera prozedura jarraituz. Errenteriako alde zaharrean dagoen apartamentuan 8 lagun arte ostatu hartu ahal izango dute, gela bikoitzatan (4X2). Aldiro talde edo konpainia bakar batek erabili ahalko du apartamentu hau.

3.4. Baliabide teknikoak

Egonaldi teknikoaren kasuan Kultura Departamentuko ikusentzunezko teknikarien gainbegiratzea izango da. Konpainiak ordu kopuru bat proposatu beharko du, ondoren Udalarekin egonaldiaren behar eta iraupenaren arabera adostuko dena. Gune eszenikoetan egun dauden baliabide teknikoak konpainien zerbitzura jarriko dira, betiere hauek kudeatzeko teknikari profesionala duten bitartean.

3.5. Baliabide ekonomikoak

Aurkeztutako proiektu bakoitzak gehienez 4.000,00€-ko beka jasoko du. Ekarpen honi, kasuan-kasu dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

Taldearen kasuan, zenbateko hori eskatutako proportzioan banatuko da, eta kasu bakoitzari dagozkion atxikipenak aplikatuko zaizkio.

Zenbatekoa egonaldi-egun, mediazioari eskainitako denbora eta konpainia osatzen duen pertsona kopuruaren arabera kalkulatu da. Honako hau hautapen batzordeak baloratuko du.

Sortzaile eta konpainiek egiten duten mediazio proposamena lanerako abiapuntu gisa ulertuko da, zeinaren gainean elkarlana garatu ahalko den, ez proposamen itxi bezala.



3.6. Beste baliabide batzuk:

Deialdi honetan 600 € arteko espeziean emandako laguntza gehigarria ere badago, hautatutako konpainia bakoitzeko eman daitekeena eta jantzietan eta/edo eszenografian izango dena, betiere arlo horietan lan egiten duten hezkuntza proiektuekin edo sortzen ari diren Udal proiektuekin lankidetzan egiten badira. Kasu bakoitzean lankidetzarako aukerak eta horien bideragarritasuna aztertuko dira.

Esleituko diren espezie laguntza gehigarri hauek Legamia deialdian onartuak izan diren onuradunak eta proiektuak ezagutzerakoan bideratu eta jakinaraziko dira.

HAMALAU GARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa

Beka bi zatitan ordainduko da, %70a egonaldi hasieran eta %30a memoria aurkeztu eta hilabetera.

Jantzietarako eta eszenografiarako espezieko 600 euroko laguntza gehigarria eskatu eta onartzen bada, bekaren bigarren zatiarekin batera ordainduko da, azken memoria aurkeztu eta gastu horiek justifikatu ondoren.

Jasotako laguntzek legez dagokien zerga atxikipena aplikatuko zaie.

Behin diru ekarpena jaso ondoren konpainiak egonaldiarekin ez jarraitzea erabakiko balu edo dagokion bete beharrak ez dituela betetzen ikusiko balitz, jasotako diru kopurua itzuli beharko du.

HAMABOS GARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Egonaldi programa honetan parte hartzen duen sortzaile edo sortzaile taldeak egonaldiari buruzko memoria bat aurkeztu beharko du, sorkuntza prozesuaren dokumentatze lan moduan balio beharko duena. Proiektua amaitu eta gehienera, hiru hilabeteko epean. Beti ere, urtarrilaren 2025ko 31ra arte.

Memoria aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren bigarren zatia.

HAMASEI GARRENA.- Justifikazioa egiaztatzea

Kultura Departamentuko teknikariak egiaztatuko du aurkeztutako memoria egokia dela eta ondorioz, dirulaguntza egoki justifikatu dela, hala nola jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo gozatzeko erabaki duen helburua bete dela. Horretarako dagokion txostena emango du.



HAMAZAZPIGARRENA.- Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna bestelako dirulaguntzekin

Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Aurrekoa gertatuz gero, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari lortu dituela dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek, eta, nolana ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

HEMEZORTZIGARRENA.- Araubide Juridikoa

Dena den, dirulaguntza deialdiaren oinarri zehatz hauetan aurreikusirik gabeko guztian, ondorengo hauek ezarriko da: Errenteriako Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorrak, Errenteriako Udalak dirulaguntzak ematea arautzeko Udal ordenantza, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, abenduaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.

ERRETERIAKO UDALA
Kultura



**AYUNTAMIENTO DE
ERRETERIA**
Cultura

ERANSKINA II

(Pertsona fisikoen taldeen kasuan bakarri betetzeko)



**PERTSONA FISIKOEN TALDEEN LANKIDETZA-AKORDIOA, DIRULAGUNTZEN ONURADUN
IZATEKO**

Legamia 2024: Arte biziaren sorkuntza eta mediazio egonaldi programetarako beka

BILDUTAKOAK

- Alde batetik, _____ jauna/andrea NAN: _____
helbidea: _____.
- Alde batetik, _____ jauna/andrea NAN: _____
helbidea: _____.

(Gehitu taldeak dituen pertsona guztiak)

Alderdiek elkarri aitortzen diote hitzarmena egiteko gaitasuna eta zilegitasuna, eta, horretarako, honako hau,

AZALTZEN DUTE

1.- Akordio honen helburua pertsona fisikoaren talde bat eratzea da, LEGAMIA 2024 DIRULAGUNTZAREN deialdiaren onuradun izateko: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako beka.

2.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikulua ezartzen duenez, pertsona fisiko edo juridikoaren talde publiko edo pribatu nortasunik gabeak direnean, berariaz jaso beharko dira, bai eskaeran, bai dirulaguntza emateko ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta horiek ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adinako ahalordea izango duena. Ezin izango da elkartea desegin lege honen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

3.- Sinatzaileek ordezkatzeko dituzten pertsonak Legamia 2024: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako beka deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela, onuradun izateko, eta



elkarrekin honako proiektu eta/edo jarduera hau gauzatu nahi dutela:

“ _____ ”

EBATZI

Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzea, aurreko hirugarren atalean identifikatutako proiektua eta/edo jarduera gauzatzeko, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Alderdiek adierazi dute lehenengo atalean identifikatutako deialdian batera parte hartu nahi dutela.

Bigarrena.- Alderdiek _____ jauna/andrea identifikatu dute elkartearen ordezkari gisa (NAN: _____). Ordezkari horrek behar besteko ahalmena izango du erakunde onuradun gisa taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko.

Hirugarrena.- Talde honetako kideek erantzukizun solidarioa izango dute diruz lagundutako jarduera itzultzeko betebeharrei dagokienez, bai eta diruz lagundutako jardueratik erator daitezkeen arau-hauste administratiboei dagokienez ere.

Laugarrena.- Akordio hau sinatuta, pertsona fisikoek adierazten dute banaka betetzen dituztela Legamia 2024rako deialdiaren oinarrietan aurreikusitako baldintzak: arte bizietako sorkuntza- eta bitartekaritza-egoitzen programetarako bekak, onuradun izateko, eta, bereziki, adierazten dute ez daudela sartuta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetako batean ere.

Bosgarrena.- Taldeko kideek konpromisoa hartzen dute proiektu eta/edo jarduera bakoitzerako ondoren zehazten diren ehunekoak pertsona bakoitzeko gauzatzeko.

1.Proiektua eta/edo jarduera:



Izen-abizenak

Exekuzio konpromisoa

**Dagokien diru laguntzaren
proportzioa**

Total

100 %

100 %

Seigarrena.- Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute akordio honen indarraldiari eusteko eta elkartea ez desegiteko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

Lankidetzeta-hitzarmen honetan adierazitakoarekin ados daudela adierazteko, alderdi guztiek honako hau sinatu dute:

Izena

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.

DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden arauak jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen arabera eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz.

ERREENTERIAKO UDALA
Kultura



**AYUNTAMIENTO DE
ERREENTERIA**
Cultura

Informazio gehiagorako kontsutatu gure pribatasun politika:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216>.

Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, berauen aurka agertu, tratamantua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria.

Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.